

ELHEKETA. ASTE HONTAKO SOLAS GAIH.

1. Zer gizon mota zea Piarres?
2. Zer oldozzen duzu horren lanuz?
3. Eta ~~anizatez~~ zuen inteziaz uholaz lanuz?

PIARRES

LANEAN 4.

...

Heiako erreka eta izakaz bertzerik ere garbitzen zuen Piarresek. Bere galtzak galtzoin²¹ ilezkotan sarturik, bazoan, berho-sasiak pudarekin,²² haitzarekin²³ xuxenduz eta pikatuz, erreka-estaliak ~~era~~²⁴ bertzeak artharekin hustuz; bardin —behi bakar bat uztarrian manik— erreka-ziloetan adareta sartuz eta luze luzea ferraziz... Bitxia gerthazten ere baitzitzaion, egun batez, adareta hola zeramalarik. Intha²⁵ mehar mehar batean, lohiaren, basaren gainean lerratzuz zoazin beraz Gorria, Piarres eta adareta, noiz eta ere, ingurune batean, bekoz beko²⁶ egin baitzuen bere auzo, Goaña, Litzartzako alabarekin. Gorria zalukara zoan, adareta ere ba, Piarres ere ba eta bidea hertsia zen..., bazterrera jauzi baten egiteko artea doi doia izan baitzuen hantxet Goañak eta biak, Piarres eta Goaña, elgarri beha gelditu baitziren, gorri gorria eginak...

Ondoko egunetan, Ehaluze-kobordako Piarres zaharrarekin, mahats moxten ari zelarik, gogoa dena hartua zuen oraino intha herti hartan gerthatu zitzaionaz. Guttiak egin zuen gero, ez baitzion hantxet Goaña gaixoari minharrarazi!... Halako su bat heldu zitzaion oraino ere mathela²⁶ koskoetarat,²⁷ neskatxa gaztearen oihuaz orhoitu eta. Beharrik zen Goaña laboraria, gaztea eta zaluia. Eta, gero, ez zen batere hasarretu, hirriño batekin gorritu bakarrik, Piarres bezala...

"Zer hari haiz, Piarres? Hiru baixturek gainekoia egin behar eta ~~etxe~~²⁸ko begia pikatu dauték eta!..." Eta Ehaluze-kobordako Piarres, "Doni Petrirenaren iduriko bere buru ederra daldaratz, begiak hirriz, maltzur airetto batean beha eta beha zagon gure Piarresi. Eta hala hala, sekulan ez eta, zer zuen bada gaur, bere mahats-haixturekin, Irulegitik ekarrarazi aihen²⁹ hoberenak hain gaizki moxteko?..."

Piarres, arrats hartan, xixtuz sartu zen Oihanadlean, eta amak, bere ama-begi samurrez behaturik, bertze arratsetan ez zuen zerbeit ezagutu zion bere haurrari, eta berant arthe othoitzean egon ere zen, su-ondoan arras hoztu arte berant.

(ii) ADITZ IKASKUNTZA.

31 Zeramalarik 32 Zitzacionaz

33 Likatu dantek 34 Ezagutu zion.

31. EREMAN. Indicatif. Imparfait.

Hura = le, la.

Nik neraman = Je l'emmenais

Hik heraman = tu l'emmenais

Zuk zineraman = vous l'emmeniez

Harek zeramanek = il l'emmenait

Guk zineraman = nous l'emmenions

Zuek zineramaten = vous l'emmeniez

Heiek zeramatzen = ils l'emmenaient.

32 IZAN. Régime Indir. Indic. Impar.

Hura Zen = il était

Hura Zitzaitan = il m'était

" Zitzaien = il vous était

" Zitzaion = il lui était

" Zitzaien = il nous était

" Zitzaien = il vous était

" Zitzaien = il leur était

Zu Zinen = Vous étiez

Zu = vous Zitzaikeiten = vous m'étiez

" Zitzaikeion = vous lui étiez

" Zitzaikeigen = vous nous étiez

" Zitzaikeien = vous leur étiez

33 UKAN. Conj. fam. à double epli. Indic. Pre

Hik dantak/m = Tu me l'as } Objet

" diok/m = Tu le lui as }

" dankuk/m = Tu nous l'as } Sing.

" diek(deick)/m = Tu le leurs as }